



## Balantze oso positiboa egin da 2024ko Aste Santu honetan Katedralera egindako bisitei dagokienean

la beteta. Beste urte batez, Santa Maria Katedralak bisitari ugari erakarri ditu Aste Santuan. Zehazki, 4.000 lagun baino gehiagok hartu dute parte "Obretan eta irekita" programan.

Martxoaren 25etik apirilaren 1era bitarteko datuen arabera, jende gehien ostiralean, larunbatean eta igandean bildu zen, programak har zezakeen ia kopururik handienara iritsi baitzen. Bisitari gehienak beste autonomia-erkidego batzuetatik etorri dira, batez ere Madril eta Kataluniatik. Halaber, Euskal Herri osoko jendea bildu da. Eta kanpoko turismoari dagokionez, bisitari gehienak Frantziatik etorri dira.

Bisitarien kopuru etengabe eta handi horrek beste behin ere agerian utzi du "Obretan eta irekita" programak duen erakarmena; izan ere, erreferentziatzko programa da familia-turismoan eta hurbileko turismoan, Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz mugako eremuetan eta turistaren emisio-gune nagusietan.

## Jendez beteta San Juan de la Cruz eskainitako errezitaldia



Sarrerak agortu egin ziren "San Juan de la Cruzen Kantu Espiritualaz" gozatzeko; errezitaldia Santa Maria Katedralan izan zen martxoaren 27an, Emilio Gutierrez Caba aktorearekin, Luis Santana baritonoarekin, Arturo Sepulveda biolontxelo-jotzailearekin eta Victor Carbajo pianistarekin.

Erdiko nabea Gutierrez Cabaren errezitaldiaren lekuko izan zen. Hasteko, Teresa de Jesusen olerki-sorta batzuk eskaini zituzten, eta, ondoren, San Juan de la Cruzen Kantu Espiritualeko bertsoak. Azken hori Urrezko Mendeko espainiar literaturako obrarik garrantzitsuentzat jotzen da. Eta testuekin batera, Santanaren ahotsak eta biolontxeloen eta pianoaren melodiak ekitaldia arrakastatsu bilakatu zuten, espiritualtasuna eta musika batuz.



## Katedrala, Madril, Bartzelona eta Zaragozan barrena biran

Hiru helmuga "gurpil gainean", Arabako eta hiriburuko eskaintza turistikoa zabala sustatzeko, Santa Maria Katedrala gonbidatu nagusi izanik oraingo honetan.

Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren eskutik, sustapen-kanpaina bat egin zen martxoaren hasiera aldera Madril, Bartzelona eta Zaragoza hirietan; izan ere, kamioi tematizatu baten bidez, lurraldeko baliabide turistikoa nagusiak aurkeztu zituzten, tartean, Katedrala.

Fundazioaren zuzendari kudeatzailea den Jon Lasak kanpaina honetan parte hartu zuen, eta, haren ustez, pertzepzioa positiboa izan zen, hurbildu ziren pertsonen aurrean balioa eman baitzitzaizen lurraldeko zona ezberdinei, burutzen ari diren ekimen berriei eta paisaia-, natura- eta ondare-aberastasunari, tartean, Katedrala, sustapen honetako gonbidatu berezia izan baitzen.

Kanpaina bidaia-agentzietako ordezkariarentzat, oro har turismo-sektoreko enpresentzat, komunikabideentzat eta influencerentzat izan zen, baita publiko orokorarentzat ere.

Liburua

ARQUEOLOGÍA E HISTORIA DE UNA CIUDAD. LOS ORÍGENES DE VITORIA-GASTEIZ

## Gasteizen jatorria

**Duela mila urte inguru, egun Santa Maria plaza dagoen lekuan, Gasteizko muinoko antzinako biztanleak bizi ziren. Katedrala eraberritzeko prozesuan egindako indusketa eta ikerketei esker, zehatz-mehatz jakin dezakegu non kokatzen zen eta bertako eguneroko bizitzari buruzko xehetasunak zeintzuk ziren.**

Testu honen irudian, XI. mendeko eraiki bat ageri da, gaur egungo Santa Maria plazan dagoena. Eraikinak funtzio ugari zituen, eta laneko eta etxeko jarduerak biltzen zituen. Ezkerreko aldean ikus daitezkeen errekontza-egiturak eta zepak medio, esan dezakegu metalurgia-lanerako tailerra egongo zela, jada dokumentatuta dagoen antzinako sutegi batetik eratorria. 50 bat metro karratu zituen, eta zuzenean kalera ematen zuen ate batetik sartzen zen. Solairu horren gainean ganbara bat zegoen, ziurrenik biltegi moduan erabiltzen zena.

Hurrengo giroa erabat bizitegi-girokoa da. Kaletik zuzenean sar zitezkeen, eta barruan eskailera bat zuen, logela gisa erabiliko zen ganbarara igotzeko.

Hirugarren giroak, berriz, enkatxo latz bat izan zuen, eta horrek pentsarazten digu biltegiertzeko leku bezala erabiliko zutela agian. Laugarrenari buruz, ordea, ez dugu informaziorik induskatutako espaziotik kanpo zegoelako.

Esan ohi den moduan, "irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du"; beraz, merezi du ilustrazio bikain honen xehetasunak ikustea eta horiez gozatzea.



\*Arqueología e historia de una ciudad. Los orígenes de Vitoria-Gasteiz liburutik ateratako informazioa. Agustin Azkarate eta Jose Luis Solaunen obra. Ilustrazioa: @Dbòlit

JARRAI GAITZAKEZU:



AbiertoPorObras



@CatedralVitoria



CatedralVitoria



Katedraldea



@catedralvitoria